




DURANGO
Udala • Ayuntamiento


**DURANGON HILDAKOEN ALDE AGUR EDO
OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ARAUDIAREN
ONESPENARI BURUZKO ESPEDIENTEA**

- Hasierako onarpena: 11.03.29 Osoko Bilkura.
- Iragarpenaren argitaratzea: B.A.O., [70. zk., 11.04.11.](#)
- Alegazioak: EZ.
- Testu osoa argitaratzea: B.A.O., [2. zk., 13.01.03.](#)
- Indarrean sartu: 13.01.04tik hasita (Azken Xedapena)



AURKIBIDEA

ATARIKOA	3
I KAPITULUA	3
HELBURUA	3
1. artikulua.....	3
II. KAPITULUA.....	4
BAIMENA	4
2. artikulua.....	4
III. KAPITULUA.....	4
PROZEDURARI HASIERA EMATEA.....	4
3. artikulua.....	4
4. artikulua.....	4
5. artikulua.....	4
6. artikulua.....	5
IV. KAPITULUA	5
PROZEDURA BIDERATZEA.....	5
7. artikulua.....	5
8. artikulua.....	5
9. artikulua.....	6
V. KAPITULUA	6
ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	6
10. artikulua.....	6
11. artikulua.....	6
12. artikulua.....	6
13. artikulua.....	6
14. artikulua.....	6
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	7
AZKEN XEDAPENA	7



DURANGON HILDAKOEN ALDE AGUR EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ARAUDIA

2011ko martxoaren 29ko Udaleko Osoko Bilkuran harturiko akordio bidez, hasiera batean onartu zen **Durangon hildakoen alde agur edo omenaldi zibilak egiteko Araudia** (2011ko apirilaren 11ko 70. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Jendaurreko epea amaitutakoan, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipaturiko Araudia **BEHIN BETIKO** onartzen da, ondoren ageri den bezala:

ATARIKOA

Gizarteak oro har badaki estatu ez-konfesional eta laiko batean pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzakoa bermatu behar dutela erakundeek, ordena publikoa legearen arabera mantentzeko beharrezko diren mugak izanik horretarako muga bakarrik. Era berean, badakigu ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizartea dugula, eta gizarte anitz hau bere ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua aldatzen ari dela etengabe.

Gaur egungo gizartean ezinbestekoa da hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea, erlijiorik gabe bizitzea hautatu dutenen omenez ospakizun duin eta pertsonalak egin ahal izateko, zenduaren bizitza-ikuskeraren arabera, alegia.


Gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijio guztiek beren hildakoei agur esateko ospakizun liturgikoetarako toki edo tenpluak dituzten moduan, Durangoko Udalak dagokio egunetik egunera handitzen ari den eskaera sozial bati erantzuna eman nahi dio.

Araudi honen helburua da, beraz, Durangoko gizarte zibila osatzen duten familia, lagun, erakunde eta/edo entitateek beren hildakoei omenaldia egin, agur esan, hildakoek komunitateari egindako ekarpenak nahiz horien balio etikoak eta/edo giza-balioak aitortzeko antolatu nahi dituzten ekitaldien baimen eta ospakizuna arautzea.

I KAPITULUA HELBURUA

1. artikulua

Araudi honen helburua da hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibiletarako udalaren baimen eta lokalen erabilera arautzea Durangoko udal mugapean.



II. KAPITULUA BAIMENA

2. artikulua

Alkateak edo berak izendatzen duen pertsonak emango du agur edo omenaldi zibiletarako gordetako tokiak erabiltzeko baimena, betiere Durangoko Udaleko Udal Erregistroan eskaera egiten duen pertsona edo senideak bidali beharreko dokumentazioa jaso ondoren.

III. KAPITULUA PROZEDURARI HASIERA EMATEA

3. artikulua

Agur edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak Durangoko Udalaren Alkatetzari zuzenduko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak baimendutako moduetako edozein erabilita. Ekintza burutu baino 48 orduko gutxieneko aurretiaz egin beharko da. Eskabidea egiteko geheineko epea heriotz egunetik kontatuta 10 egunetakoa izango da


4. artikulua

Agur edo omenaldi zibilen eskaerak berehalakotasun-printzipioaren arabera tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen duelako, eta horiek ebazteko eskumena duen pertsonari bidaliko zaizkio.

5. artikulua.

Eskaeretan honakoak agertu beharko dira:

- a) Ospakizunerako baimena eskatzen duen pertsonaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.
- b) Hildako pertsonaren izen-abizenak. Pertsona hau heriotz egunean Durangoko Udalerrian enpadronatuta edota jarraian edo etenda, bi urtetako enpadronamendua izan beharko du.
- c) Heriotz-agiria.
- d) Eskabidean adierazi egin beharko da agur edo omenaldi zibila zein egun eta ordutan egin nahiko litzatekeen.



- e) Administrazioak, ahal duen neurrian, kontuan izango ditu eskabidean lehenetsitako egun eta ordua, betiere eskabideak aurkeztu diren ordena aintzat izanik. Ezohiko kasuetan aldatu ahal izango da ordena hori, baina betiere arrazoitu egin beharko da aldaketa.
- f) Eskabidearen lekua eta data.
- g) Eskaera egin duenaren sinadura edo, haren nahia benetakoa den froga, horretarako edozein bide erabilita.
- h) Ekitaldiaren laburpena eta behar izango den materiala (argindarra, megafonia, mahaia, aulkiak etab.).
- i) Ekintzaren ustezko iraupena.

6. artikulua

Eskaerak ez baditu betetzen aurreko artikulua eskatutako baldintzak, interesdunari ahalik eta lasterren eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo derrigorrezko dokumentuak ekar ditzan, ekitaldia egin baino lehen edo ondoren.

IV. KAPITULUA PROZEDURA BIDERATZEA


7. artikulua

Alkateak edo berak izendatzen duen zinegotziak zehaztuko du agur edo omenaldi zibila zein egun eta ordutan egingo den.

Eskatzaileek lehenetsitako egun eta orduen ordena kontuan izanik zehaztuko dira, ahal den neurrian behintzat, egun eta orduak. Udal bulegoen erabileraren ondorioz, zenbaitetan ez da eskaeretan eskatutako orduetarako horien erabilera uzterik izango. Nolanahi ere, horrelakoetan erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da eta eskaera egin dutenekin hitz egin beharko da eskatu dutenarekiko egon den aldaketari buruz.

8. artikulua

Eskaera ikusita alkateak edo berak izendatzen duen zinegotziak erabakiko du agur edo omenaldi zibila Udalaren zein lokaletan egingo den; normalean Landako Guneko Ekitaldi Aretoa edota ondoko gela. Salbuespen modura, udalaren beste lokal batzuen erabilera baimendu ahalko da.



9. artikulua

Agur eta omenaldi zibilak gunearen erabilgarritasunaren arabera ospatuko dira.

V. KAPITULUA

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua

Udalaren aretoak egoera onean mantentzearen, zeremonian parte hartzen dutenek ezingo dute aretoan kalte edo hondamenik sor lezakeen inongo ekintzarik egin. Ekintza egiterakoan udal ondasunetan sor daitezkeen kalte-galeren erantzulea baimenaren titularra izango da.

11. artikulua

Senitartekoek edo lagunek utzi zaien lokala apaindu edo modu bereziren batean egokitu nahi badute, udal arduradunari garaiz jakinarazi beharko diote, honek hartu beharreko erabakia har dezan. Tokiaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu egin beharko dira beti eta eurek ordaindu beharko dituzte lokala apaindu eta egokitzeak eragindako gastu guztiak. Ekintza burutzeko eskatzen diren bitarteko osagarriak Landako Erakustazokak jarriko ditu interesdunen eskuera. Zerbitzu osagarrien kostua Landako Erakustazokak onartuko ditu eta eskabidea egiteko erabiliko den eskabide-orri normalizatuan agerian egongo dira.

12. artikulua


Eskaera egin duen pertsonak agur edo omenaldi zibila egiteko espazio publikoa erabili beharra badauka, dagokion eskabidean berariaz adierazi beharko du. Udalak erabiliko den espazio publikoa mugatuko du eta hor lehen aipatu ditugun eskubide eta betebeharrak aplikatuko dira. Eraikuntzaren erabileraren ondorioz, zenbaitetan ez da eskaeretan eskatutako erabilera uzterik izango. Nolanahi ere, horrelakoetan erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da.

13. artikulua

Udal eraikuntzetan ospatuko diren ekintzetan ezin izango da gorpua egon. Onartu egingo da errauts-kutxailak.

14. artikulua

Araudi honetan aurreikusi gabeko gainerako kasuetan, udal arduradunen aginduak bete beharko dira.



XEDAPEN GEHIGARRIA

Durango Udaleko Alkatetzari baimena ematen zaio araudi hau aplikatzeko beharrezko diren jarduketa guztiak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da behin betiko testua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean eta Udalbatzak espresuki aldatu edo indargabetzen duen arte egongo da indarrean.

Durango, 2012ko abenduak 17a

Alkate andrea,

Izp...: Aitziber Irigoras Alberdi